

Euskal lexikografia: kodetzetik garatzera

Miren Azkarate

UPV/EHU

Laburpena

Hizkuntza baten aldaera estandarra lantzeko beharrezkoak diren bi urratsen, kodetzearen eta kode horren garapenaren argitan aztertuko dira artikuluko honetan Euskal Lexikografiako lan nagusiak. Kontuan harturik azken berrogeita hamar urte hauetan sortu eta landu dugula euskara estandarra, euskara batua, estandarren bila dabiltzan hiztegitzat har ditzakegu 1968 artekoak eta aldaera estandar horretako hitz egokiak hautatzeko nolako irizpideak erabili dituzten ikusiko dugu. Orotariko Euskal Hiztegia eta Hiztegi Batua hartuko ditugu mugarriztat, eta estandarretarako kodearen garapen moduan aztertuko ditugu Ibon Sarasola hiztegitagileak EHUko Euskara Institutuaren barruan eginiko lanak. Estandarren bila dabilen hiztegitagintzatik heldutasunera heldu den hiztegitagintzara arteko ibilbidea da, beste modu batean esanda, artikuluko honen edukia.

0. Sarrera*

Oso zaila da, ezinezkoa ez esatearren, Ibon Sarasolaren izena eta bere ibilbide akademikoa euskal hiztegitagintzarekin ez lotzea. Batetik, ugariak direlako Sarasolak berak XVI. mendetik aurrerako hiztegitagileez eginiko ikerketak eta argitaratutako lanak; hor ikus daiteke zenbaterainokoa den euskal lexikografiari dagokionez Sarasola ikertzailearen maisutasuna. Bestetik, ikertzaile teoriko ez ezik, hiztegitagile ere badelako, ondoko lerroetan ikusiko dugun bezala, Mitxelenaren gidaritzapean lehenik eta bera bakarrik ondoren, euskal hiztegitagintzako lan nagusien ardura izan duena.

Ohikoa da hiztegiak irizpide baten edo bestearen arabera sailkatzea eta, hala, ezagunak zaizkigu hiztegi elebakarrak, hiztegi elebidunak, entziklopediak, hiztegi historikoak, etimologikoak, etab. Zgustak (1989), ordea, hizkuntza jakin baten aldaera estandarrean izandako eragina hartzen du irizpi-

* Emaizta hauetara ekarri gaituen ikerlan honek Europar Batasunaren ikerketarako, teknologia garatu eta erakusteko Zazpigarren Esparru Programaren laguntza jaso du 613465 diru-laguntza hitzarmenaren bitartez. Halaber, Eusko Jaurlaritzaren IT665-13 programaren bidezko finantziakzioa ere izan du lan honek.

detzat, eta irizpide horren argitan aztertuko ditugu gure lexikografiako lanak. Ikuspegi honetatik, lau motatan sailkatu zituen hiztegiak Zgustak (1989): estandar-sortzaileak —estandar idatzia sortzea helburu dutenak—; modernizatzaileak —estandarra modernizatzea helburu dutenak—; arkaizatzaileak —estandarrerako aldaketak gerarazteaz gain, atzera egin eta forma eta esanahi zaharkituak sartzeko ahalegina egiten dutenak—; eta estandar-deskribatzaileak —estandar jakin bateko lexikoa deskribatu eta argitzen dutenak—; nahiz Zgustak berak argitzen duen hiztegi gehienak mistoak direla. Zergatik aukeratu dugu irizpide hau, hiztegiak eta estandarra elkartzen dituen? Hizkuntza gutxiu bateko hiztegi gintza ari garelako, azken batean; aldaera estandarerrako lehen pausoak 1968an¹ eman dituen hizkuntza batez. Estandarra finkatzeaz ari garela, gogoan izan behar dugu hizkuntza baten aldaera estandarrek bi urrats, bi motatako zereginak eskatzen dituela: norma edo araua kodetzea (*codification*) eta, ondoren, kodea, estandarerrako hautatu den aldaera hori osatu eta garatzea (*elaboration*), etengabe aldatu eta modernizatzen den gizartean edozein alorretan erabili ahal izateko. Kodetzeak grafia bat aukeratzea (*graphization*), gramatikaren arauak zehaztea (*grammatication*) eta lexiko egokia hautatzea (*lexication*) dakar berarekin; horrexegatik, ortografia, gramatika eta hiztegi preskriptiboak izaten dira kodetzetik sortzen diren ohiko produktuak. Baina oinarritzko kode hori ezarri ondoren, etengabeko lantzea eskatzen du edozein hizkuntzak; besteak beste, terminologia auziei edo estilo desberdinen ingurukoei erantzun egokia emateko ahalegina (Haugen 1983). Hiru atal nagusi bereiziko ditugu, beraz, euskal hiztegiak aztertzean. Lehen partean, *lexikazioa* helburu izan duten hiztegiak, estandarerrako hitz egokiak biltzeko ahalegina egin dutenak; zein irizpideren arabera egin duten hitz egokien hautua.² Kodea ezartzeari eskainiko diogu bigarren parte; hau da, *Orotariko Euskal Hiztegiari* eta *Hiztegi Batuari*. Eta, azkenik, kode lexikoa garatzen ari diren modu askotako hiztegiei; bereziki Ibon Sarasolak XXI. mendeko testuetatik abiatuta garatu dituen *Hiztegi Batua Euskal Prosan*, *Egungo Euskararen Hiztegia* eta *Lexikoa Atzo eta Gaur* egitasmoei.

1. Kodetzea helburu: estandarerrako hitz egokien bila

Hainbat dira XVI.-XX. mendeetan landutako hiztegiak, hitz-zerrenda elebidunak eta, are, euskara ikasteko eskuliburuetan aurkitzen diren hitz-zerrendak ere (Sarasola 1998); gutxi izan ziren, ordea, bere garaian argitaratuak.

¹ Euskaltzaindiaren 1968ko Batzarraren ernamuina 1964ko Baionako Biltzarraren Erabakiak [<http://www.euskaltzaindia.net/dok/ikerbilduma/59415.pdf>] direla ere esan daiteke. Nola nahi ere, orain dela 50 urteko ahaleginaz ari gara, ez lehenagokoaz.

² Hegoaldeaz arituko gara, Iparraldean ez baitute, oro har, horrenbestearaino hausturarik izan XVII. mendetik gaur arte. Lan honetan aipatzen diren ikerlanetatik Sarasolaren (2006) argitalpena jo dezake Iparraldeko jokabideaz argibideak nahi dituenak.

Guztien artean, hiru eredu aztertuko ditugu, 1987 arteko hiztegi-gintzak eginiko kodetze-ahaleginen erakusgarriak behinenak direlakoan: Larramendirena, Azkuereana, eta Sabino Aranak bultzatu zuen eredu garbizalea. Ohar bat, hala ere, ‘estandar’ terminoaren erabileraz. Egia da 1968an hasi ginela euskara batua lantzen; baina ‘aldaera estandarra’ komunitate batean prestigiozko funtzioak betetzeko hautatutako hizkuntza-aldiera bada, ez da dudarik aukera argiak aurkituko ditugula aipatu hiztegi-tan prestigiozko aldaera horretarako egokiak eta desegokiak diren hitzen gainean. Hauxe da, beraz, galderetako bat: zein irizpideren arabera aukeratu zituzten batzuek eta besteek hitz horiek? Zer kontsideratu zuten «euskal hitz», nola jokatu zuten mailaguekin eta nola jokatu zuten erdal terminoen euskal ordainak ematean?

Beharrezkoa da, ordea, eginiko aukeren eragina neurtzea ere: zenbaterainoko eragina izan zuten batzuek eta besteek beren garaiko (eta ondorengo) hiztun eta, batez ere, idazleengan? Azken hau baita helburu zuten aldaera estandar horren arrakasta neurtzeko irizpiderik argiena.

Bestalde, hiztegi elebidunak izan dira, funtsean, gure artekoak oraintsu arte eta horrelako hiztegiek lau eginkizun³ izan ditzaketen arren, hizkuntza bateko edo besteko hiztunentzat egoten dira pentsatuak, inoiz ez bi hizkuntzatarakoentzat. Euskararen kasuan, gainera, aldaera estandarrik gabeko hizkuntza izatearen zailtasuna gehitu zaio; horregatik, gure hiztegi elebidunak «askoz areago dira «euskara ikasteko», «euskara ezagutzeko» edo «euskararen alde egiteko» tresnak» (Sarasola 2006: 895). Bada hor, beraz, beste galdera bat: norentzat ondu zituzten hiztegiak, euskaldunentzat ala erdaldunentzat (gaztelaniadunentzat)? Hartzaileei dagokienez, «euskal hiztegi elebidunak, formaren aldetik, euskaraz dakien erdal hiztun batentzat pentsatuak dira ia beti» (Sarasola 2006: 897).

Hirugarrenik, gogoan izan behar dugu garai historikoak ere baduela eragina; batetik, hizkuntzaren beraren egoera aldatu egiten delako garai batetik bestera; baina, bestetik, ingurune sozio-kulturala ere aldatu egiten delako. Ikuspegi horretatik, ez da berdin XVIII. mendean Larramendik zuen ingurunean ontzea hiztegia, edo, beste muturrera joanda, XXI. mendearen hasieran, corpusak gure artean ditugunean, ekitea hiztegi-gintzari.

1.1. *Larramendiren Hiztegi Hirukoitza*

Ez dago zalantzarik lexiko estandarra kodetzearen ikuspegitik (eta beste hainbatetatik ere) Larramendiren (1745) hiztegi hirukoitza, *Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence y Latín*, dela erreferentzia nagusia XX. mendearen hasieran Azkueren (1905-06) *Diccionario Vasco-Español-Francés* ar-

³ 1. H₁ hizkuntzan testu bat ontzen laguntzea; 2. H₂ hizkuntzatik H₁ hizkuntzara testu bat itzultzen laguntzea; 3. H₂ hizkuntzan testu bat ontzen laguntzea; 4. H₁ hizkuntzatik H₂ hizkuntzara testu bat itzultzen laguntzea (Sarasola 2006).

gitaratu zen arte. Bestalde, Larramendirena da argitaraturiko lehen hiztegia, eta horrek aukera eman zion garaiko hiztun eta idazleengan eragiteko; garaiko idazleengan eta baita hurrengo mendekoengan ere: «Larramendi dugu aro berria zaharretik bereziko duena» (Mitxelena 1984: 30). Baina Hiztegi Hirukoitz horren ezaugarri nagusiak ezingo genituzke ulertu kontuan hartu gabe hiztegia asmo askoz zabalago baten katenbegia baino ez zela: inguruko hizkuntzak bezalaxe, euskara ere kultura-hizkuntza izan zitekeela erakustea zuen helburu Larramendik eta kultura-estrategia zabal horren barruan ulertu behar da *Diccionario Trilingüe*aren ahalegina, bi helburu garbi dituen: batetik, «kanpoko» erdaldunei, arrotzei erakutsi euskara hizkuntza bizia eta jakintza-gaietarako egokia zela (Mitxelena 1961).⁴ Bestetik, euskaraz zihardutenen —bereziki apaiz eta predikarien— euskara maila altxatu; euskara eredu jaso eta garbiago bat eskaini. Bi motatako hartzaileak ditu, beraz, buruan Larramendik: etxeokak eta euskararik ez zekiten kanpokoak. Azken hauei erakutsi behar zien euskarak badituela gaztelaniak adina hitz. Euskaldunei, berriz, ez zela zilegi gaztelaniatik neurririk gabe hitzak hartuaz jardutea; bazela eredu «jasoago» bat, garai hartarako «estandar zaindu bat»; «Larramendi izan da, lehenbiziko aldiz eta erabat, hizkuntza larrekoa noranahiko bihurtu nahi izan duena» dio Mitxelenak (1984: 33).

Neurri handi batean erdaldunentzako hiztegia zenez, gaztelaniatik abiatu zen, Real Academiaren hiztegiko sarreretatik, eta bakoitzari bere euskal ordaina eman zion. Nola jokatu zuen, ordea, euskarazko ordainak aukeratzean? Esku-zabal, euskalkirik baztertu gabe, eta maileguei dagokienez ere euskaraz ongi errotuak zeudenei atea zabalduaz; bat datoz horretan Mitxelena (1984) eta Sarasola (1998). Larramendi (1745: xlviii) bera da, gainera, hiztegiari eginitako hitzaurre luzean zer irizpide baliatu zuen argi uzten duena: ez bereziki garbizalea, jatorria jatorri, literatura tradizioan edo hiztun onen ezpainenetan irakur eta entzun daitezkeen hitzak onartzea, eta gaztelania edo frantsesa jakitea eskatzen duten hitz «mordoiloak» baztertzea.⁵ Ez zuen, baina, hori nahikoa. Erdal sarrera bakoitzaren ordaina emateak hutsarteak betetzea eskatzen zuen eta horretan, berak bestelakorik⁶ dioen arren, parrastaka asmatu zituen hitzak

⁴ Jatorrizko testua 1961ekoa da sarean kontsulta daitekeena [<http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/52252.pdf>], baina garai hartako grafian eman ordez, nahiago izan dugu aipamena 1988ko argitalpenetik hartzea.

⁵ «Entre las voces vulgares del Bascuence, pongo muchas, que en propiedad no son Bascongadas, ni de origen suyo, pero que las ha heho propias suyas, por el uso, y por la virtud, que como Lengua viva tiene de apropiarselas, y adoptarlas. (...) Hay otras que se han introducido por necesidad, como en otras lenguas, y son de objetos que nuevamente se han descubierto, y no ha habido Bascongado que fabrique voces propias y acomodadas al caracter de su Lengua; y estas necesariamente se habían de poner en el Diccionario. En fin hay otras, que están en uso entre los Bascongados, que saben Castellano y Francés, y comunmente saben poco Bascuence: y estas las destierro del Diccionario (...) De estas voces están llenos los sermones que hoy se predicen en Bascuence».

⁶ «Los Bascongados al ver en el Diccionario una cantidad tan prodigiosa de su Lenguaje vulgar, unos preguntarán si todas son voces del Bascuence? Y otros resueltamente dirán, que no lo

Larramendik (Mitxelena 1984: 31). Hauen artean aipamen berezia merezi dute *voces facultativas* deitzen dienak, gaur ‘termino’ deituko genituzkeenak. Hitz berriak sortu behar zituen, euskarak hitzak sortzeko dituen baliabideak erabiliaz (hitz elkarketa eta eratorpena), edo maileguak hartu. Eta hemen, garbizale ageri zaigu; latinetik edo grekotik mailegatu ordeztuz, nahiago du euskarak dituen baliabideetara jotzea.⁷ Hitz batean, ongi laburbiltzen dute Mitxelena (1983) aipatzen dituen hiru bideek nola jokatu zuen Larramendik euskara aberasteko batetik, eta garbitu eta zuzentzeko bestetik.⁸

Larramendiren ahaleginak nolako eragina izan zuen aztertzen badugu, ohartuko gara gaurko euskara batua zordun zaiola, berak erakutsitako bidetik bestek sorturiko testuak izan ditugulako gero gaurko estandarra moldatzeko iturri. «Larramendiren lanaren eta hiztegiaren ekarpenik handiena, Hegoaldeko euskal testuek gaztelaniarekiko agertzen zuten morrontza lotsa-garririk libratzea izan zen. Eta literatura gipuzkera —eta XIX. mendearen hasieran literatura bizkaiera— sortzen erabakigarri gertatzea» (Sarasola 1998). XIX. mendeko hiztegi guztiak ere Larramendirenaren erabateko zordun agertuko dira.

Ez da, beraz, gehiegizkoa, estandar-sortzailatzat hartzea Larramendi eta, neurri batean, modernizatzaile gisa ere bai. Egia da termino asko eta asko bazterturik geratu zirela; baina, Zalbideren (1991) «aitzindari-bide» vs. «aitorle-bide» bereizketa hartuaz, ez da zalantzarik «aitzindari-bidea» hartu zuela Larramendik. «Aitzindari izan genuen Larramendi eta ez zuen esateko moduan deus desegin, zenbait ohitura kaxkarrez beste. Hurrengoek deuseztatu zuten haren lana, berririk nahi ez zutelako edota guztia berritu nahi zutelako erabat» (Mitxelena 1984).

1.2. *Sabino Arana eta garbizaletasuna*

Larramendiren eragina etenda geratuko da XIX. mendearen amaiera aldera. Beste bide batzuk hartuko dituzte lexiko egokiaren bila dabiltzanek. Europako giroa ere aldatua zen eta gure artean nagusituko diren joerak ga-

son, sino de mi fábrica, y invención. A los que preguntaren con modestia, y sin pasión, digo que todas son Bascongadas, y que no pongo ninguna, que, o no aya leído en los libros impresos, u oido en alguno de los dialectos del Bascuence» (Larramendi 1745: xlvi).

⁷ El Bascuence ha conservado la virtud de fabricar voces nuevas, compuestas de sus fecundísimas raíces, y el derecho de apropiarse, y adoptar como suyas otras muchas de diferentes Lenguas, para significar nuevos objetos, y ser riquísima entre todas (Larramendi 1745: xxxiii)

⁸ «Hauexek genituzke: a) edozein alde eta alditako euskal hitza, hangoa nahiz hemengoa, inoizkoa nahiz oraingoa, euskarazkoa den aldetik, erabil daiteke. b) Inondikako hitzak erabiltzeaz gainera, eskubide osoa dugu hitz horien zentzua eta adiera ahal adina hedatzeko eta zabaltzeko, testuinguru berriak aukeratuaz; c) hitz berriak sortzeko eskua ere badugu, edozein hizkuntzatan gertatzen denez. Baditugu gainera geureganatuak eta etxerakotuak ditugunak metaka eta ez genituzke bertan behera utzi behar».

rai horretako seme edo alaba izan ziren, Larramendiri bere garaian gertatu zitzaion bezalaxe. XIX. mendearen amaiera aldera eta XX. mendearen hasierako ahaleginetan bi nabarmendu ziren: Azkuenera batetik (hurrengo puntuan aztertuko duguna), eta Sabino Arana Goirirena bestetik.

Sabino Aranak hizkuntza, eta bereziki hiztegia eraberritzeari, «garbitzeari» ekin zion, garai hartan Europan beste hainbat hizkuntzak eginiko bidetik.⁹ Euskararen singularitasuna azpimarratu behar zen, gainerako hizkuntzekin izan zitzakeen loturak albo batera utzi eta, horrexegatik, «jatorri arrotzeko» hitz guztiak baztertu, baita mendeak lehenago latinetik hartu eta euskarak bereganatuak zituenak ere, horien ordeztasunetik hitz berri «euskaldunak» sartzeko.¹⁰ Ulertzekoa da, beraz, Larramendiri gerra bizia sortu izana; bai Arana Goirik eta bai Azkuek berak ere. Areago, *voces facultativas* delakoetan maileguak hartu ordeztasunetik bertatik sortutako ordainak izateak ere ez zituen libratu baztertuak izateatik (Pagola, 2005).

Aurreko puntuan ikusi dugu hiru bide hartu zituela Larramendik hiztegiak sortu zitzaizkion beharrei erantzuteko. Arana Goirik (1905) ere hiru bide hartu zituen euskal lexikoa «eraberritzeko: euskal jatorriko ez ziren hitz guztiak ordezkatu, behar berriei erantzuteko hitzak sortu eta euskal hitzen forma zehaztu.¹¹

Erabileraren, tradizioaren gainetik logikari ematen zaio lehentasuna (aditz arazleak, esaterako, *-ra-* artizkiaren bidez eratu behar dira: *eragon* (egon arazi) etab.) eta arrazoi beragatik «hobetzen» eta «zehazten» dira euskal jatorriko hitzen formak: *odoldau*, *lotsage* edo *argiztu* bultzatzen dira, hurrenez hurren, *odoldu*, *lotsagabe* eta *argitu* baztertuaz (Pagola 2005). Larramendirenaren oso bestelako jokabidea. Hitz berriak ez ziren nabarmentzen gaztelaniazko hitzen euskal ordainak behar zirelako, edo gurean premia sortu berriei aurpegi emateko, «ez beti behintzat, ezta maizenik ere: hainbat bider ez ziren garbi-kutsu itsaskorak zekarren eritasunaren aztarnak baizik» (Mitxelena 1984: 38). Beraz, estandar-sortzaile izan

⁹ Pagolaren (2005) lanari Sarasolak eginiko sarreran ikus daitezke beste hizkuntza baztertuak jokabideak. Sarasolaren iritziz, Arana Goirirena ez zen izan, inondik ere, itxuraga-beena.

¹⁰ Morfologiaren eta sintaxiaren arloan ere egin zituzten berrikuntza eta proposamenak, hemen aztertuko ez ditugunak.

¹¹ «La *integridad* de un Diccionario comprende: a) *exclusión absoluta* de los vocablos *alienígenas*; b) determinación de la *forma exacta* de cada uno de los *indígenas*. Ambas condiciones son *necesarias y absolutas*. Lo es la primera, porque el Diccionario del Euzkera ha de serlo de sus voces, y no son suyas las alienígenas; y porque el Euzkera no necesita aceptar vocablos exóticos, como otras lenguas, pues tiene suficiente riqueza en las composiciones y suficientes y bellas notas derivativas para expresar los más complicados como los más simples conceptos de la mente.» Hartara, *eleiza*, *meza* edo *zeru* baztertu zituzten, horien ordeztasunetik, hurrenez hurren, *txadon*, *jaupa* eta *donoki* sortzeko.

zen Arana Goiri ere; baina, agian, «arkaiztzaile»tzat ere jo dezakegu aha-
legin horretan.

Hala ere, Arana Goirik ez zuen hiztegirik ondu. *Lexikazio* saio hori, Arana Goiri eta haren jarraitzaileen berritze-lana ulertzen laguntzeko, hainbat sarreratan etimologia ematen duen Beraren eta Lopez Mendizabalen (1916)¹² hiztegian aurkituko dugu: «Garai hartan, abertzaletasunaren inguruan batez ere, sortzen den euskaltzale mota berri horren eguneroko premietarako tresna» (Sarasola 2006: 897). Ez da egia osoa, ordea, Bera-Lopez Mendizabalen hiztegi horiek Arana Goirik sortu eta moldatutako hitzen gordailu hutsa direla. Badira, gainera, aldeak bi hiztegi artean. Sabindarren proposamenetan bilatuko ditu Bera'tar Erroman Mirena Abak erdarazko hitzen ordainak; baina behar duenik aurkitzen ez duenean, Azkueren hiztegi joko du. Nabarmenagoa da Azkueren eragina Ixaka Lopez Mendizabalen euskara-erdara hiztegiaren: «Lopez Mendizabalen hiztegi honen oinarri argi eta garbia, nahiz inon aitortzen ez duen, Azkueren hiztegia da» (Sarasola 2006: 899), Beraren erdara-euskara zatiko proposamenak ere neurri nabarian jaso arren.

Horrela ikusita, garai hartako «estandarren» deskribatzailetzat hartuko genuke Bera-Lopez Mendizabalen hiztegia (edo hiztegiak). Baina, Sarasolak (2006) dioenez, badira euskara-erdara atalean Lopez Mendizabalenak berarenak diruditen sarrera eta adierak. Eta, alde horretatik, hein batean bederen, estandar-sortzaile ere izan zela esan daiteke; edo aitzindari-bidea aukeratu zuela, Zalbideren bereizketa oinarri hartuz gero.

Kaleratu zirenetik eta 1975-76 arte, bost argitaraldi izan zituen lehenak, Beraren *Erdera-euzkera* hiztegiak, eta sei bigarrenak, Lopez Mendizabalen *Euzkera-erderak*.¹³ Arrakasta honek berak erakusten du, ezer gehiago gehitu beharrik gabe, nolako eragina izan zuen Arana Goiriaren lexikoa «eraberritzeko» eta kanpoko eragin guztietatik garbitzeko saioak. Baina saio horren ondoan, baita, neurri (handi) batean —osorik ez izan arren— hurrengo puntuan aztertuko dugun Azkueren lexiko ereduak ere.

1.3. *Azkueren* Diccionario Vasco-Español-Francés

XIX. mendearen amaierako giro nahasi hartan, tradizioko hitzak baztertu eta lexikoa euskarak bereak ez zituen aldaketa fonologiko bidez eratutako hitzez hornitzen zen giro hartan, hasi zen Azkue bere hiztegia ontzeko lekukotzen bila, herrietan jaso nahirik euskaldunek benetan erabiltzen zituzten hi-

¹² Bera-Lopez Mendizabal (1916) *Euzkera-Erdera / Erdera-Euzkera* [www.memoriadigital vasca.es/handle/10357/495].

¹³ Bestelako hiztegi gintza-produktuak ere izan dira XX. mendean, hemen kanpoan utzi beharko ditugunak: Plazido Mujikaren hiztegiak, Retanarena, euskalki eta testu-hiztegiak... Sarasolaren (2006) lanera jo daiteke horien berri izateko.

tzak.¹⁴ Nola jokatu zuen, hortaz, euskal jatorriko hitzekin, euskal jatorrikoak ez izan arren aspalditik geuraganatuak ditugunekin, eta nola hitz berri edo neologismoekin? Arana Goirik ez bezala, jatorria jatorri, sarrera eman zien euskarak bereganatuak zituen hitzei.¹⁵ Baina bazuen hitzen jatorriari buruzko kezka eta horregatik galdera ikur bikoitza ezartzen die «erdal» hitzei. «Euskal kide jatorra» eta «hizkuntzan ongi errotua», ordea, oso adigai zabalak dira, eta argi dago, praktikan, erdaratiko hitz gehienak —are *fede* bezalakoak— ez direla jasotzen bere hiztegian» (Sarasola 2002: 621). Bestalde, herriaren erabilerrari eman zion lehentasuna, ez literatura-tradizioari; herriak zuen azken hitza, ez idazleek. Bada hor alde nabarmena Larramendirekin; eta horrexegatik baztertzen ditu Larramendiren hitzak, behintzat herriaren aho-ezpainetan entzun ez dituenak, «porque no sabía cuáles eran las populares y cuáles las elaboradas» (Azkue 1905-06: xiii). Berdin jokatzeko du Sabino Aranak eta bestek sortutakoekin ere, goizegi zelakoan artean horrelakoak hiztegian sartzeko (Azkue 1905-06: xviii). Funtsean, esan dezakegu, euskara lehen hizkuntza duen hiztegian, hiru irizpide izan zituela oinarri: asmakizunik ez, berrikeriarik ez, hiztunek (eta autoreek) benetan erabili zituzten eta erabiltzen zituzten hitzak ziren kontuan hartzekoak. Baina, aldi berean, herritzat zeukan bere burua ere eta, horrenbestez, «eskubidea zeukalakoan zegoen herriak erabiliak zuzentzeko, apaintzeko eta hainbestetan soiltzeko» (Mitxelena 1964). Areago, Sarasolaren (2002) iritziz, hiztegiaren hitzaurrean berak bestelakorik esan arren, Azkue garbizalea zen, Arana Goiri baino garbizaleagoa segur aski.¹⁶

Diccionario vaso-español-francés lanaren eraginari dagokionez, ezinbesteko irizten zioten Azkueren hiztegiari idazle zein hizkuntzalarientzat, 1960ko hamarkadan Mitxelenak (1964) eta Sarasolak (2002).¹⁷ Hiztegiaren bultzatu nahi izan zuen lexikoari dagokionez, ordea, hitz gutxi batzuk kenduta, Azkueren eraginaren gehiena Olabide, Zaitegi eta idazle talde jakin baten idazlanetan soilik aurkitzen da, eta ez da hurrengo belaunaldiko idazlanetara igaro (Sarasola 2002: 618). Hiztegi moduan, 1.2. puntuan ikusi bezala, «Hegoaldean bederen, Espainiako gerra aurreko eta gerra ondoko hiz-

¹⁴ «Euskal hitzen arazoan, dakienak daki nolako nahastea genuen jaun eta jabe 1900 inguruan. Akerrak barreiatuturik zebiltzan ardiak artean eta nekez aurki zitekeen zein zein zen zekienik. Maizenik, gurasoengandik hartu genituen ondasunak baztertuturik, letoizko bitxi politez apainduak genbiltzan. Azkue paper-eske, lekuko-bila hasi zen arte, herriz herri eta euskalkiz euskalki, hiri eta hirixka urrutienetaraino joaz. Eta ez zituen horrenbestez ahaztu zokoratutak zeuden liburu zaharrak» (Mitxelena 1964).

¹⁵ «En cuanto a las voces exóticas, he incluido aquéllas que no tienen equivalente castizo y han tomado carta de naturaleza en el idioma, como *eliza, errege, liburu, meza*, etc.» (Azkue 1905).

¹⁶ *Diccionario vasco-español* amaitugabea ageri den Azkue terminologiagilea hartzen du Sarasolak jokabide garbizale horren frogatzat: 'algebra' esateko *matizti* edo 'alkohol' en ordain *anurin* proposatzen duena.

¹⁷ Azkueren *Diccionario vasco-español-francés* lanaren «alde badaezpadako eta desegokien aipua» nahi duenak, ikus dezake Sarasola (2002).

tegi «normala», hots, euskaraz irakurtzen eta idazten duen jende arruntaren —hau da, euskalari-eta ez direnen— hiztegia, ez da Azkueren *Diccionario vasco-español-francés*» (Sarasola 2006: 897), baizik aurreko puntuan aipatu dugun Bera-Mendizabalena.

Laburbilduz, euskal hitzen altxorraz, aspaldiko maileguez eta euskarak behar dituen hitz berriez emandako erantzun desberdinetatik harantzago, Larramendiren eragina guztizkoa izan zen XIX. mendeko hiztegi-gintzan eta prosan. Azkuerena, berriz, XX. mendeko hiztegi-gintzara mugatu zen batik bat, Sabino Arana izan baitzen prosan gehien eragin zuena.¹⁸ Nolanahi ere Pagolaren (2005) lana aztertuaz edo hurrengo puntuan ikusiko ditugun *Orotariko Euskal Hiztegiaren* eta *Hiztegi Batuaren* argitan jabetuko gara zenbat eta zenbat hitz kodetu ditugun lexikoan ahalegin hauetatik datozkigunak (gutxi batzuk baino ez aipatzearren *abizen*, *antzeztu*, *antzoki*, *hirukoitz*, *ikur*, *guda* eta hortik sortutako guztiak, etab.).

2. Kodea ezartzea: *Orotariko Euskal Hiztegia* eta *Hiztegi Batua*

Maileguekin eta hitz berrieekin nola jokatu, eztabaidak jarraitu zuen gerra aurrean. Altube hedatuak dauden maileguak hartzearen aldeko zen (batez ere euskal ordainak askoz hedadura gutxiago duenean); beste batzuek, ordea, maileguen ordeztu euskal ordain jatorrak sortzea nahi zuten. Gerra ondoren, sarri arduratu zen Villasante gai horretaz; haren iritziz, guztiz jatorrak eta erabiltzekoak dira, jatorria jatorri, euskaldunok aspaldidanik erabiltzen ditugun hitzak; purismoak, hala ere, baditu bere alde onak. Lehen puntuan ikusi dugu premiarik gabe erdal hitzak sartzen zituen euskara haren aurrean, Larramendiren euskara zainduagoaren aldeko ahaleginak mesedea baino ez ziola ekarri hizkuntzari (Azkarate 1997, 2008).

Euskaltzaindiak (1959) «euskal hitzei» buruzko agiria eman zuenean amaitu zen latinetik hartutako maileguen zilegitasun eta jatortasunari buruzko eztabaida; kontuan hartu beharrekoa ez da jatorria, baizik erabilera.¹⁹

¹⁸ «Larramendiren *Diccionario Trilingüe* obra erraldoiak XIX. mendeko hiztegi-gintza betetzen duen bezala, Azkueren *Diccionario vasco-español-francés*ek XX. koaren gehiena betetzen du. Dena dela bada alde nabaririk bi eragin horien artean. Larramendik, gaur egun jakina denez, XVIII. mendeko bigarren erdialdeko eta XIX. mendeko hiztegi-gintzan eta orobat hizkuntza idatzian —batez ere Hegoaldekoan, eta maila batetik gorakoan— ia erabateko eragina izan zuen. Azkueren eragina areago mugatu zen hiztegi-gintza hutsera; hizkuntzari dagokionez, askozaz ere erabakigarriagoa gertatu zen Sabino Arana Goirik hasi eta haren jarraitzaileek gauzatu eta bururatu zuten hitz berri sortzea (Sarasola 2002: 617).

¹⁹ «Sustrai haundiko hitzak, bada, euskal-hitzak dira, nahiz eta erderatik etorri. Bada gure hiztegiaren holako hitzen piloa: jatorriz kanpotik sartuak, baiña euskeran gogotik errotuak daude, alegia. Beraz, etxeko bihurtuak dauzkagu, gure gureak dira hitz horiek. Euskal hitzak dira bada, erderatikakoak izanarren. Hitz horiek eskubide osoz erabili ditezke, eta horien lekuan erabiltzeko asmatu diran hitz berriak ez dira gehienetan euskal-hitzak eta ez dute haiek hainbat eskubide erabiliak izateko» (Euskaltzaindia 1959: 215).

Agiri horren ondoren, Euskaltzaindiaren Arantzazuko Biltzarrean Mitxelena (1968a) aurkeztutako txostenak berresten du 1959ko irizpidea.²⁰ Horretaz gain, «Hitzen Formaz» ari dela, badira hor irizpideak nola jokatu batasunik ez dagoenean. Hitz berrien premiari dagokionez, Larramendik-eta egin antzera hitz-elkarketaz edo eratorpenaz baliatzeaz gain, kanpotik hartzen ditugunak nola geureganatu erabaki beharra ere aipatuko du.²¹ Lexikoari buruzko irizpide orokor horiek hartuko ditu berriro hizpide Euskaltzaindiak egin beharreko hiztegiak zehaztasun batzuk emateko (Mitxelena 1968b). Norrentzat zen hiztegia? Idazle, hizlari eta, jakina, irakurle eta entzuleentzat; eta Larramendik egin nahi izan zuen moduan, «Horientzat, hiztegiak gidari beharko du izan, bide-erakusle, eguneroko hizkera baino goragoko batera gidari, nahiz goragokoak, nonahi gertatzen den bezala, beheargokoan finkatua eta errotua izan». Eta nolako hiztegia?

Jakite-lanetarako —eta beste edozein hiztegitarako oinarri gisa ere bai— behar-beharrezkoa dugu erabateko hiztegia («general» esan nahi dut), hango eta hemengo euskalkietako hitzak eta hitzen aldaerak jasoko dituen eta, oraingoak ez ezik, baita antzinako euskal ondasunak eta ondakinak bilduko dituen.

Horixe izango dugu, hain zuzen ere, hurrengo urteetan landu eta 1987tik aurrera argitaratu zen *Orotariko Euskal Hiztegia*.

2.1. Orotariko Euskal Hiztegia

Euskararen tradizioko hitz-ondarea jaso nahi du lehen hizkuntza euskara duen eta Mitxelenaren gidaritzapean lantzen hasi zen²² hiztegi honek; garai eta euskalki guztietako ondarea bildu eta sistematizatzeko ahalegina da, Mitxelenak berak idatzirik utzi zuen bezala.²³ Ez bakarrik tradizio idatziko hi-

²⁰ «Antzinasunak ematen dio soil-soilik hitz bati jatortasuna», «Euskaltzaindiak ezin arbuia dezake euskal hitzik, ez hangorik ez hemengorik, ez zaharrik ez berriagorik» eta «[erderatikako hitzak] besteak bezain euskaldunak dira eta besteak bezain premiazkoak ditugu».

²¹ Hortik sortuko da 80ko hamarkadan Hiztegiak Batzordearen egitura osoa, *Orotariko Euskal Hiztegia* eta ondoren *Hiztegi Batua* hartuko dituen, baina baita maileguak egokitzeke arauak, hitz elkartuak sortzeko irizpideak aztertuko dituen LEF Batzordea eta *Eguno Euskararen Bilketa Sistemakoa* (EEBS) ere. Ikus M. Zalbide (1986): «Hiztegiak Batzordea» *Euskera XXXI*, 2. aldia. 127-142 [<http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/50546.pdf>].

²² Lehen liburukia argitaratu aurretioxan hil zen Mitxelena eta Sarasolaren gidaritzapean jarraitu zuen lanak hari eta bilduma osatzen duten 16 liburukiak argitaratu arte. Hau da, zalantzarik gabe, Sarasola hiztegiaren ekarpen handienetako bat.

²³ «El DICCIONARIO GENERAL VASCO trata de recoger y sistematizar el patrimonio léxico vasco de todas las épocas y dialectos. Se trata, por lo tanto, de una obra general y descriptiva, no de un diccionario normativo». Eta ondoren zehazten du zer iturririk jaso dagoen ondare hori [http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com_content&view=article&id=276&Itemid=413&lang=eu]

tzak, baita hiztegi-gileek jaso dituztenak ere; hau da, 1. puntuan ikusi ditugun estandarizatorako ahalegin guztien lekuko eta biltzailea da *Orotariko Euskal Hiztegia*: «No se trata, por lo tanto, de establecer qué palabras son «vascas», sino de mostrar, en lo posible, las palabras y expresiones que han empleado los vasco-hablantes» (OEH, Hitzaurrea: xi). Hiztegi deskribatzailea da, beraz, ez arau-emailea; euskal hiztegi-gintzarentzat eta, orobat euskal estudioentzat oro har, baliagarri gerta zitekeen guztia biltzea asmo zuena; aldi berean, testuetan benetan erabilitako hitzak eta hiztegi-takoak zirenak bereizteko aukera ematen duena (hau da, 1745etik aurrera euskal hiztegia ‘modernizatzeko’ ahaleginak, gehienetan hiztegi-gilearen asmakizuna zekartenak, benetan erabilerarik izan zuten ala ez ikusteko balio duena):

Beharrezkoa zen, orobat, gure literatura tradizioan landu eta ondu zen hitz-ondarearen bilketa ahalik eta zabal, oso eta orekatuena bururatzea, ezein garai edo euskalki arbuia gabe, ezein idazle talde edo hitz-mota baztertu gabe. Hots, ahal zen neurrian, tradizioaren irudirik osoena eta neutroena, aberatsena eta orotarikoena ematea zen egingizuna (Sarasola 1998).

Sarasolaren hitz-hauek, frantsesaren hiztegi-historiko erraldoia ondu zuen Émile Littrérenak (1880: 6) dakarzkigute gogora: «Mes instructions étaient fort générales: recueillir, autant que faire se pourrait, des exemples de tous les mots, n’omettre ni les archaïsmes, ni les néologismes, ni les contraventions à la grammaire». Hiztegia nola egin zuen azaltzen duen liburuxka hori irakurtzean, Mitxelenak, Sarasolak eta beren taldeak izandako buru-haustea ikusiko ditugu islatuak. Azken hauek, haatik, ehun urte geroago jardutea izan zuten alde eta iturri-guztiak corpus-batean bildurik lan egin ahal izan zuten. Gertakari-honek errotik aldatu zuen euskal hiztegi-gintza.

Bestalde, Mitxelenak (1968a) hitzen aldaeraz esana gogoan izanik, erabilera izan zen sarrera-bakoitzaren lema erabakitzeko irizpide nagusia. Lema edo forma hori da, hitzaurreak dioenez, literatura-estandarerako proposa litekeena.²⁴ Beraz, ordura arteko hitz-ondarearen bilduma izateaz gain, lexikoan egiteko zegoen estandarerako bide-erakusle ere izan nahi du *Orotariko Euskal Hiztegiak*; hitzen formaren bide-erakusle eta oinarri hartu beharreko irizpide nagusiaren bide-erakusle.²⁵ Ez dago, ordea, euskarak XX. mendearan amaieran behar dituen hitz-berriak jasotzeko edo proposatzeko ahaleginik; ordura artekoaren lekukotza zintzo eta leiala ematea da helburua. Eta, alde

²⁴ Beti ez da, ordea, lema bakarra proposatzen: «cuando aparecen en negritas más de una forma, se quiere indicar que no tenemos fundamentos suficientes para dar preferencia a una de ellas» (OEH, Hitzaurrea: xiii).

²⁵ Hiztegiaren egituraz, iturriez, sarreraren antolamenduaz... gehiago jakin nahi duenak jo dezake *Orotariko Euskal Hiztegiaren* Hitzaurrera edo I. Sarasola (1997) «Lexicografía Vasca: El Diccionario General Vasco.» In C. García, I. González Fernández & M. González González (arg.), *Actas do Simposio de Lexicografía actual: elaboración de diccionarios. Cadernos de lingua. Anexo 3*. 141-155.

horretatik, azken mendeetan egin ziren 'estandarerako' saioen deskribatzaile baino ez da OEH.

Azken hitz bat lexiko estandarra finkatuko zuen hiztegia egin aurretik *Orotariko Euskal Hiztegia* lantzeaz. Tradizioa ongi ezagutu beharra zegoen araugintzari heldu aurretik. Berriro ere Émile Littrék (1872) bere *Dictionnaire de la Langue Française*ri eginiko hitzaurrean esanak aplikatu zitzaizkion (ia) hitzez hitz gurera, iraganak garamatza etorkizunera:

je dirai, définissant ce dictionnaire, qu'il embrasse et combine l'usage présent de la langue et son usage passé, afin de donner à l'usage présent toute la plénitude et la sûreté qu'il comporte (...) Je fus si frappé des liens qui unissent le français moderne au français ancien, j'aperçus tant de cas où les sens et les locutions du jour ne s'expliquent que par les sens et les locutions d'autrefois, tant d'exemples où la forme des mots n'est pas intelligible sans les formes qui ont précédé, qu'il me sembla que la doctrine et même l'usage de la langue restent mal assis s'ils ne reposent sur leur base antique (...) Le passé de la langue conduit immédiatement l'esprit vers son avenir

Eraginari dagokionez, OEH erredaktatzeko eratu zen azpiegiturak euskal hiztegiaren belaunaldi berri bat eragin zuen (Sarasola 1998). Belaunaldi berri horren «ume» dira *Lur* eta *Elhuyar* hiztegiak eta entziklopediak, (eta Sarasolak berak landutako *Vox Euskara-Gaztelania Castellano-Euskara* hiztegiak). Hauen guztien oinarrian, berriz, *Hauta-lanerako Euskal Hiztegia*²⁶ dago, lehen euskal hiztegi elebakar homologagarria dena, eta, aldi berean, Mitxelenaren OEHren irakurketa arau-emaile bat baino ez dena. Beraz, Sarasolaren hitzak hartuaz esan dezakegu urteotan ondu den euskal hiztegiaren berria OEHren ondorioa besterik ez dela (Sarasola 1998).

2.2. Hiztegi Batua

Mitxelenak (1968a) eskatu zuen hura, «Beharrezkoa dugu, bederen, hiztegitxo bat, ia ortografiarekikoa huts-hutsik, nahi-ta-ezko badu ere hitzen esanahia laburzki adieraztea» dugu, funtsean Hiztegi Batua (berrikitan ohiko hiztegi moduan garatu dena, *Euskaltzaindiaren Hiztegia*). Estandarrerako hitzen forma eta gramatika-kategoria arautzen duena; askotan adierak eta/edo adibideak ere ematen dituena, erabilera argitze aldera.²⁷

²⁶ Leku-faltaz, aipamen xume hau baino eskainiko ez diogun arren, Sarasolaren *Euskal Hiztegia* (1996 eta 2007 2. argitaraldia) izango da *Hauta-lanerako Euskal Hiztegiaren* ondorena, hiztegi elebakarretarako guztizko eredu.

²⁷ «Argi dago Euskaltzaindiaren Hiztegi Batua, lehen idatzaldi honetan, ortografia hiztegia dela batez ere, hau da, hitzen *forma* egokiaz ari dena. (...). Dena dela, aski da Hiztegiari gaingiroki begiratzea besterik ere eskaintzen duela ikusteko» (Hiztegi Batua: «Argibideak» [http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com_content&view=article&id=85&Itemid=410&lang=eu]

Euskararen lexikoa kodetzeko, batetik OEHK jasotako hitzen altxorra hartu zen kontuan, maiztasunaren galbaketik pasaturik. Hortaz, tradizioan erabilera handiena izan duten hitzak aukeratu ziren.²⁸ Baina, bestalde, ezin ziren albo batera utzi euskarak XX. mendearen amaieran behar zituen hitzak (hitz berriak) ere: «oro bat bildu ditugu Hiztegi Batuaren lehen idatzaldi honetara gure literatura tradizioan ongi finkaturiko hitzak, eta baita azken hogeita hamar urteotako testuetan agertzen direnak ere, osaera zuzenekoak izanik premia bati erantzuteko egokitzat jo direnean».²⁹ *Lexikazio* lan honek badu, bestalde, helburu pedagogikoa ere; nahitaezko zaio mailak ezartzea euskaraz erabiltzen diren hitzen artean, estandarerrako, koderako, zein den egoki eta zein ez, zein den hitz baten erabilera zuzena³⁰ eta zein ez, zein den bestea baino hobea... Hortik datoz «*e.» edo «h.» ikurrak. Beharrezko zaio, halaber, gaztelaniara edo frantsesera jo beharrik gabe, Ipar eta Hegoaldeko euskaldunentzat ulergarri izango diren hitzak hautatzea. Hiztegi Batua lantzean, beraz, estandar-sortzaile eta modernizatzaile ahalegina zegoen. Zalbidereen (1991) «aitzindari-bide» eta «aitorle-bide»en artean

batzuetan aitorle izan beharko dugu. Hedatua eta onartua dagoen terminoa onartuaz (...). Beste askotan, aitzindari izan beharko dugu, erdal hitzetik abiatuko baikara. Hasi orduko izan dugu aukera horrelako adibideak ikusteko. Onartzekoa ez den *abrelatasen* ordain egokia eztabaidatu genueneko datorkit gogora. Eta nola gizarteratu behar dugun erdal *abrelatasen* euskal ordain normalizatua zein den (Azkarate 2008: 181)

Hala ere, ez dira horrenbeste erdal hitzendako proposatutako euskal ordainak. Askoz gehiago dira testuetatik hartutako hitzak (gehienetan maileguak) eta aztertzea estandarerrako guztiz baliagarriak ziren ala mugaz alde bateko edo besteko euskaldunek bakarrik zerabiltzatenak. Gaur Hiztegi Batua osatzen duten 36.000 sarrerek biltzen dute estandarerrako lexikoaren oinarria.

2.3. *Hiztegi elebidunak*

Hiztegi elebidunek ere, hizkuntza ‘exotikoa’ (‘gutxitua’ ere esan genezake) denean sarreretakoa, abiapuntukoa, eta ‘kultura hizkuntza’ (‘hizkun-

²⁸ Jakina denez, bi alditan landu zen Hiztegi Batua. Hemen diogunak lehen aldiko helburua islatzen du, erabilera urriagokoak edo alderdiren batetik eragozpenen bat zutenak bigarren ekinaldirako utzi baitziren. Nolanahi ere, bi aldietako azterketa amaitu ondoren, sarean dago eskura.

²⁹ Hiztegi Batua: «Argibideak» [http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com_content&view=article&id=85&Itemid=410&lang=eu]

³⁰ Argigarriak dira, guztiz, Argibideetan aipatzen diren adibideak: *kartera* zein adieratan den gaitzesgarri, *aleazio* izenak behar duen *Heg.* markaz, edo *alfonbra* eta *tapiz* sarrerei, hurrenez hurren, ematen zaien *Heg.* Eta *Ipar.* markez esaten dena.

tza nagusia’), aldiz, jomugakoa, izan dezakete helburu hizkuntza gutxitua estandar idatzian erabilia izateko sustatzea (Zgusta 1989). Ahalegin horrek jarraitu zuen 1968an estandarizazioari ekin zitzaionetik Hiztegi Batuaren bidez lexikoaren kodea ezarri arte ere. Ez da hemen lekurik ahalegin hori sakan aztertzeko, baina ez da dudarik 1977an argitaratu ziren bi hiztegieta —L.M. Mujikaren *Diccionario General y Técnico* (gaztelania-euskara / euskara-gaztelania) eta X. Kintanaren *Euskal Hiztegi Modernoa*— badela helburu eta ahalegin hori, berriro ere, Larramendiren antzera, erdal sarrerari euskal ordaina ematean. *Des-* aurrizkidun erdal hitzen euskal ordainak proposatzean, esaterako. Sarasolak³¹ dioen bezala (2003: 219), «agreement between what both propose does not even reach 50%». Bien artean, askoz eragin handiagoa izan zuen Kintanarenak 70eko hamarkadaren amaieran eta 80ko hamarkadako lehen urteetan. Hurrengo hamarkadan etorri ziren Elhuyarren hiztegia (1996) edo Bostak Bat lantaldearen *3000 hiztegia*. Hiztegi-gintza bera eta euskara estandarra bera ere askoz finkatuago egon arren, bada horietan ere, gaztelaniaren pare, hizkuntza gutxitua estandar idatzian erabiltzeko forma egokiak proposatzeko ahalegina (Sarasola 2003). Baina erdal esapideen ordainak eman behar horretan, «esapide horien kideak gure tradizioan bilatzen baino areago, euskal ordainak asmatzen ari garelako susmoa dut» (Sarasola 1998). «Bide-aitzindari» berriro ere, Larramendi bere garaian izan zitekeen bezala.

3. Kodearen garapena

Bi produktu-mota azpimarratuko ditugu azken urteetako kodearen garapena aztertzean. Batetik, *Euskalterm*, terminoen datu-basea. Haugenek (1983) esan bezala, hizkuntza baten lexikoak etengabeko berritzea behar duenez (batez ere terminogintzaren arlokoa), aurrerapauso handia da bai Terminologia Batzordearen sorrera, bai batzordeak Hiztegi Batuko irizpideak oinarri harturik argitaraturiko terminologia lanerako metodologia,³² bai eta datu-basea bera ere. UZEIk 1977tik aurrera landutako hasierako terminologia-hiztegiak eta hortik aurrera landu diren guztiak biltzeaz gain, Terminologia Batzordeak eginiko normalizazio-lana ere ikus daiteke hainbat arlotan [Eu] marka daramaten termino normalizatu/gomendatuetan. Ohargarria da, hala ere, oraindik ere termino horietako asko eta asko ‘hiztegi-hitzak’ izatea eta ez ‘testu-hitzak’. «Bide-aitzindari», «bide-aitorle» baino gehiago; estandar-sortzaile, estandar-deskribatzaile baino areago.

³¹ Bi hiztegien arteko aldean, *Orotariko Euskal Hiztegia* edo, oro har, XX. mendearen azken laurdeneko hiztegi-gintzan sakondu nahi duenak, Sarasolaren lan honetara jo dezake.

³² http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/terminologia_2013/eu_edukia/lanak.html

Bestetik, azpimarratzekoak dira Sarasolak mende honetan EHUko Euskara Institutuan zuzenean sarean landutako hiztegiak, estandar-deskribatzailetzat har ditzakegunak. Ez dira ohiko hiztegiak (ez, behintzat, ondoren aipatuko ditugun lehen biak), ez dute sarreraren ondoan adiera eta adibiderik. Bestelakoa da haien helburua: batetik, tradizioetik datorkigun eta, bestetik, estandarerrado kodetu dugun lexikoa ebaluatzea, hitz altxor horren erabileraren nondik norakoa ikustea. Ebaluazio horretarako XXI. mendeko lehen urteetako testuak biltzen dituen *Ereduzko Prosa Gaur* (EPG), 25 milioi testu-hitzeko corpusa hartzen da oinarri.

Lexikoa Atzo eta Gaur (LAG), ‘hiztegi’ ez, baizik ‘lexiko’ deitzen zaionak, hor biltzen diren sarreraren erabilera aztertzea du helburu; historian zeharreko erabilera eta gaur egungo erabilera. *Orotariko Euskal Hiztegia* da tradizioko erabilera neurtzeko iturria eta, aldi berean, bi garaitan banatzen dira iturri horretako hitzak: hasieratik XIX. mendearen amaiera artekoak eta lehen testuetatik batasunaren hasiera artekoak. Gaur egungo erabilera neurtzeko, esan bezala, EPG corpuseko hitzak hartzen dira. Horrela neurtzen da, bezaraz, lema bakoitzaren bilakaera; XIX. mendearen amaiera arteko erabilera eta EPGekoa alderatuaz eta OEH osoko erabilera eta EPGekoa alderatuaz. Aldi bakoitzean zein autorek erabili duten ere esaten da.³³

Hiztegi Batua Euskal Prosan (HBEP), berriz, kodetu den lexikoak testuetan nolako harrera izan duen neurtzeko dago egina. Berriro ere EPG oinarri harturik, corpus horretako lema Hiztegi Batuan jasoak dauden ala ez; zenbat bider ageri den hitz jakin bat corpuseko testuetan (lema eta lema horren aldaera guztiak, alegia), eta, azkenik, zein autorek erabili duten. Azalpenetan esaten den bezala, aurrez aurre jarri nahi dira Euskaltzaindiak batasunerako egin duen proposamena eta testuetan benetan erabiltzen den hitz-bilduma.³⁴

Sarean zuzenean lantzen ari den hiztegiak, *Egungo Euskararen Hiztegiak* (EEH)³⁵ osatzen ditu aipatu berri ditugun bi egitasmo hauek. OEH bezala, corpus batetik abiatzen den hiztegia da, baina bestelako helburua duena: euskal lexikoaren tradizioko ondarea biltzea zuen helburu OEHk; gaur erabiltzen den euskararen hiztegia egitea du helburu EEHk. Horregatik abiatzen da EPGtik; LAGek eta HBEPek oinarri duten corpus beretik, alegia. XXI. mendeko corpusa abiapuntu izateak berarekin dakar hiztegia estandar-deskribatzaile izatea; EEHn «aitorle-bidea» ikusiko dugu, mende honetako testuetan ageri diren hitzak eta horien adierak agerian jartzen dituen, ez «aitzindari-bidea». Idazleek, kazetariak... erabilitako hitz, mailegu eta terminoen ‘aitortza’ egiten da; ez da ezer berririk asmatzen. Parekoak dira, alde horretatik, OEH eta EEH.

³³ Ikus «Honi buruzko azalpenak» [<http://www.ehu.es/lag/>]

³⁴ <http://www.ehu.es/ehg/>

³⁵ <http://www.ehu.es/eeh/>

Sarean lantzeak, bestalde, esan nahi du ez dela alde zuretik paperean kaleratu den hiztegi baten pdf. bertsioa, hobetua izanik ere; hau da, letra bakoitzaren landu ahala sareratzen da. Horrexegatik kontsulta daiteke oraindik guztiz amaitu gabe egon arren. Tamainari begiratzen badiogu, ez da dudarik OEHrenkin batera, euskaraz dugun hiztegiarik zabalena dela. Sarasolak dioen bezala, luze-zabalaren aldetik ez dira oso diferenteak bi hiztegiak, «lehen etapa honetan, *Orotariko Euskal Hiztegiaren* tamainako 12 bat liburuki beteko lituzke paperean kaleratuko balitz». Datu batzuk ematearren, gaur kontsulta daitezkeen letrak lantzeko 46.546 sarrera erabili dira; sarrerak eta adierak, berriz, 176.195 dira eta EPGtik hartutako 332.203 adibideak argitzen dituzte adiera horiek. Bada, haatik, alde nabarmen bat OEHren eta EEHren artean: euskara-gaztelania hiztegia da lehena (gaztelaniaz ematen dira adierak, argibideak, laburdurak, etab.); euskara-euskara hiztegia da EEH, *Hauta-Lanerako Euskal Hiztegiaren* eta *Euskal Hiztegiaren* ondorengotzat har daitekeena. Nabarmenak dira, ordea, hiruren arteko aldeak, tamaina hutsaz harantzago doazenak. Batetik, esan dugu EPG corpusa duela abiapuntu EEHk; baina alde nabarmena, sarrera bakoitzaren amaieran ageri diren bi laukiak dira, hainbat datu estatistiko ematen dizkigutenak. Lehen laukian ikusiko dugu zein hitz-multzotan (zein konbinazioetan) ageri den maizen lema jakin bat, eta zenbat agerraldi dituen hitz-multzoko bakoitzak. Hitz-multzoko horietako bakoitzaren gainean klik egiteak EPGra eramango gaitu zuzenean eta hor kontsultatu ahal izango ditugu agerraldi guztiak bere testuinguruan. Bigarren laukian, berriz, sarrera jakin horren zenbait argibide aurkituko ditugu: Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batuan* agertzen den ala ez, hitzaren agerraldi kopurua guztira, agerraldi horiek liburuetan eta prentsan banatuak, hitz hori zein autorek edo zein aldizkarik erabili duen eta hitz horrek dituen forma desberdinak. Honetan ere, hitzaren gainean klik eginda HBEPra eta LAGera joan gaitzake; hau da, hitz jakin hori Hiztegi Batuan agertzen den ala ez jakiteaz gain, euskararen historian zehar nolako bilakaera izan duen ere ikus dezakegu.

EEHko sarreraren egitura da euskal hiztegiak lortu duen heldutasun mailaren erakusgarri behinena: batetik, maiztasuna eta ‘kolokazio’ edo hitz-multzoko ezinbesteko baliabideak direlako gaurko hiztegiak eta, bestetik, hiztegitik corpusetarako estekak (lasterbideak) direlako «bigarren generazioko hiztegi» deitu zaien ezaugarria. EEHn, gainera, lasterbide horiek ez dira oinarri duen EPG corpusetarako bakarrik; aitzitik, Euskara Institutuaren atarian landu diren hiztegi batetik besterako lasterbideak dira. Hartara, hiztegiaren zerbitzura jartzen dira orain arte landutako baliabide guztiak: corpusa, batetik, eta euskal lexikoaren bilakaera zein kodearen ezarpen-maila aztertzekeko garatutakoak, bestetik.

Euskararen lexikoa modernizatzeko lanean aurrera egiteko tresna guztiz baliotsuak dira, beraz, Sarasolak ondu dituenak, eta berritzaileak, gainera; nik dakidala ez da horrelako ‘lexiko-neurgailurik’ inguruko hizkuntzetan, are gutxiago horrelako hiztegi eremu urriko hizkuntzetan. Azken urteetako hiztegi eta lanak ikusirik, esan dezakegu kodea ezartzeko ahalegineta-

tik abiatuz, heldutasuna lortzera iritsi dela euskal hiztegi gintza. Eta ibilbide horretan nabarmena izan da eta da Sarasolaren eragina: kodea ezarri duten OEH eta Hiztegi Batua lantzen, hiztegi elebakarrak, are XXI. mendeari dagozkion «bigarren generazioko» hiztegiak ontzen, eta egindako kodetze-lana ebaluatzeko baliabideak lantzen.

Aipamenak

- Arana Goiri, Sabino 1905. «Observaciones sobre las condiciones generales que debe reunir un Diccionario de la Lengua Euzkera», *Euzkadi* Tomo I, 9. [Berrargitaratua-2303-2309]
- Azkarate, Miren. 1997. «Hiztegi Batua». In *Federiko Krutwig-i omenaldia*. Iker-10. Bilbo: Euskaltzaindia. 79-104.
- Azkarate, Miren. 2008. «Hiztegi gintza eta euskararen normalkuntza». *Euskalgintza XXI. mendeari buruz*. Iker-19. Bilbo: Euskaltzaindia. 171-182
- Azkue, Resurrección Maria. 1905-1906. *Diccionario Vasco-Español-Francés*. [1969. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca]
- Euskaltzaindia. 1959. «Euskaltzaindiaren agiria euskal itzei buruz». *Euskera* IV, 214-215. [<http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/11701.pdf>]
- Haugen, Einar. 1983. «The Implementation of Corpus Planning: Theory and Practice». In J. Cobarrubias & J.A. Fishman (arg.), *Progress in Language Planning: International Perspectives*. Contributions to the Sociology of Language 31. Berlin: Mouton. 269-289.
- Larramendi, Manuel. 1745. *Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence, y Latín* [faksimila 1984. Donostia: Txertoa].
- Littre, Émile. 1872. «Préface au Dictionnaire de la Langue Française.» [http://classiques.uqac.ca/classiques/littre_paul_emile/preface_dictionnaire/preface_dictionnaire.html]
- Littre, Émile. 1880. *Comment j'ai fait mon dictionnaire de la langue française*. [Nouvelle édition précédée d'un Avant-Propos par Michel Bréal. 1897 Paris: Librairie Ch. Delagrave]. [<http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k81576g/f9.image>]
- Mitxelena, Koldo. 1961. «Euskal hiztegi gileak XVII-XVIIIgarren mendeetan». *Euskera*, 2. aldia, VI, 7-22. [Berrargitaratua In Joseba Lakarra (arg), 1988. *Koldo Mitxelena. Euskal idazlan guztiak* VII. Euskal Editoreen Elkarte. 47-66.]
- Mitxelena, Koldo. 1964. «Azkue eta euskal hiztegia». *Zeruko Argia*, 9/8/1964. 4 [Berrargitaratua In Joseba, Lakarra (arg), 1988. *Koldo Mitxelena. Euskal idazlan guztiak* VII. Euskal Editoreen Elkarte. 71-73.]
- Mitxelena, Koldo. 1968a. «Ortografía». *Euskera* XIII, 203-219 [<http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51289.pdf>]
- Mitxelena, Koldo. 1968b. «Euskaltzaindiaren Euskal Hiztegiak». *Euskera*, 2. aldia, XIII, 270-271 [Berrargitaratua In Joseba, Lakarra (arg), 1988. *Koldo Mitxelena. Euskal idazlan guztiak* VII. Euskal Editoreen Elkarte. 75-77.]
- Mitxelena, Koldo. 1983. «Euskara eta euskararekiko ikerlanak (1700-1880)». *Eusko Ikaskuntzaren IX. Kongresoa*. Bilbo. 237-250 [Berrargitaratua In Joseba, Lakarra (arg), 1988. *Koldo Mitxelena. Euskal idazlan guztiak* VI. Euskal Editoreen Elkarte. 47-74.]

- Mitxelena, Koldo. 1984. «*Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia*-ren aurkezpena». In Ibon Sarasola. *Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia*. Donostia [Berrargitaratua In Joseba, Lakarra (arg.), 1988. *Koldo Mitxelena. Euskal idazlan guztiak VII*. Euskal Editoreen Elkarte. 25-45.]
- Pagola, Ines. 2005. *Neologismos en la obra de Sabino Arana Goiri*. Iker-18. Bilbo: UPV/EHU-Euskaltzaindia.
- Sarasola, Ibon. 1998. «Euskal hiztegitzinta. Irakaskuntza egitasmoa». eskuizkribu argitaragabea, UPV/EHU.
- Sarasola, Ibon. 2002. «Euskal hiztegitzintzaren historiarako oharra: Añibarro, Iztueta eta Aizkibelen hiztegiez, eta Azkueren hiztegitzintzaz». In X. Artiagoitia, P. Goenaga & J. Lakarra (arg.), *Festschrift for Rudolf P.G. de Rijk. ASJUren Gehigarriak* 44. Bilbao: UPV/EHU. 611-627
- Sarasola, Ibon. 2003. «Lexicography in the last quarter of the 20th century up to the publication of the *Orotariko Euskal Hiztegia*». In J. Gorrochategui (arg.), *Basque and (Paleo)Hispanic Studies in the Wake of Michelena's Work*. Bilbao: UPV/EHU. 219-244.
- Sarasola, Ibon. 2006. «Oharra xx. mendeko hiztegitzintzaz *Orotariko Euskal Hiztegia* arte». *ASJU XL*. 895-920. [<http://www.ehu.es/ojs/index.php/ASJU/article/download/4440/4385>]
- Zalbide. 1991. «Euskaltzaindia euskal hitz-aitxorraren berrikuntza-lanean: eginkizuna eta jardupidea». *Euskera XXXVI*, 2, 1097-1113.
- Zgusta, Ladislav. 1989. «The Role of Dictionaries in the Genesis and Development of the Standard». In F.J. Hausmann, O. Reichmann, H.E. Wiegand & L. Zgusta (arg.), *Wörterbücher. Dictionaries. Dictionnaires*. Erster Teilband / First Volume / Tome Premier. Berlin and New York: Walter de Gruyter. 70-79. [Berrargitaratua In Fredric S.F. Dolezal & Thomas B.I. Creamer. 2006. *Ladislav Zgusta. Lexicography Then and Now. Selected Essays*. Tübingen: Max Niemeyer Verlag. 186-197.]